



## **ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHU "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" 2023ko DEIALDIARI LOTUTAKO DOKTOREAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO DEIALDIA**

### **Ebaluaziorako onartu eta baztertu diren eskaeren behin betiko zerrenda**

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, errektoreordetzaren web atarian ebaluazio-fasera pasatzeko onartu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen, zuzenketa eskatzen zuten eskaeren xehetasunekin.

Zuzenketa egiteko epea amaitu ondoren, IAEk ERABAKI DU ebaluaziorako onartu eta baztertu diren eskaeren behin-betiko zerrenda bere web-atarian argitaratzea.

#### **Helegiteak**

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsa hori jarriz gero, eta errekurtsa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsa ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. Artikuluak).

Leioa, 2024ko abenduarearen 16an.

**IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA**  
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza